LAN MERKATUAREN BALANTZEA 2020

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

2020

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO
Lanbide

Txosten honetan EAEko lan-merkatuak 2020. urtean izan dituen gertaera nagusiak aztertzen dira, haren aldagai garrantzitsuenen portaera kontuan hartuta. Lan-merkatuari lotuago dauden administrazio-iturriak hartu dira kontuan (Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregistratutako langabezia eta kontratuen erregistroa), baita biztanleen lan-jarduera neurtzen duten eragiketa estatistiko nagusiak ere (Eustaten- Biztanleria Jardueraren Arabera – BJA - eta Eurostat-en Labour Force Survey-ko datu batzuk)

Aurkibidea

Testuinguru Ekonomikoa 4
Lanbiden erregistratutako langabezia 5
Gizarte Segurantzako afiliazioa 7
Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 8
Enplegua Eustaten eta BJAren arabera 10
Langabezia Eustaten BJAren arabera 12
Eranskina- Taulak 14

Testuinguru Ekonomikoa

2020ko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %2,2ko hazkundea izan du; 2020 urte osoari dagokionez %2,ko hazkundea aurreikusten da

Eustat-en arabera, 2020ko laugarren hiruhilekoan **EAE**ko BPGak urte arteko % 2,2ko hazkundea izan du aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz. Urte lau hiruhilekoetan hazkundea berbera erregistratu da, urte hirugarren hiruhilekoan izan ezik, bertan % 2,1eko hazkundea izan zen.

Laboral kutxak osatzen duen EAEko familien konfiantza indizea -9an kokatu zen 2020ko laugarren hiruhilekoan, daturik okerrena 2015 lehen hiruhilekoaz geroztik. Datua, aurreko hiruhilekoan erregistratutakoa baino 4 puntu baxuagoa da, agerian utziz itxaropenen narriadurarako joera. Konfiantza indizearen batez besteko balioa 2020ko lau hiruhilekoetan -2 izan zen, aurreko urteko emaitza baino 3 puntu apalagoa. Serieak aurreko urtetako ezkortasunaren itzulera erakusten du. Datu globalaren oinarrian, ekonomia orokorraren norabideaz duten konfiantzaren galera eta lan merkatuaren etorkizuneko bilakaeraz duten ezkortasuna daude. EAEko familien ustez, ekonomiaren eta enpleguaren egoerak okerrera egingo du hurrengo 12 hilabeteetan.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2020ko apirila" txostenak

Europako Ekonomiari dagokionez, Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea % 1,0 hazi zela 2020ko azken hiruhilekoan, urte arteko tasan. Beraz, urte osoko hazkundea % 1,2 izan zen, 2019koa baino sei hamarren txikiagoa. Tasa hori 2014tik BPGak izan duen txikiena da. Bizitasun apalago hori eremuko ekonomia nagusietan nabaritu zen. Espainia berriro izan zen herrialde dinamikoena eremuko bost ekonomia handienen artean. Hain zuzen ere, ekonomia espainiarra % 2,0 hazi zen iazko azken laurdenean eta egonkortasuneko joera garbia erakutsi zuen. Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, iazko urte osoan eskuratu zuen %2,0ko hazkundea, ez du eskari nazionalak ekarri aurreko bi urteetan bezala, non kanpo eskariak moteltzen zuen BPGaren hazkundea. Aurten eskari nazionala 1,5ekoa izan da, hazkundea moteldu duen faktorea izanik. Enpleguari dagokionez, Espainian % 2,0ko urte arteko erritmoan hazi zen 2020ko laugarren hiruhilekoan eta lanaldi osoko 358.000 lanpostu baliokide sortu ziren.

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da Espainian eta Eurogunean. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek 2020. urterako Eurogunerako egindako aurreikuspena %0,6koa da. Espainiarako egindako aurreikuspena altuagoa da, % 1,5.

Euskadiri dagokionez , Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak % 3,6ko murrizketa aurreikusten du 2020. urterako.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2020ko apirila" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

2020. urtean erregistratutako langabeen kopurua % 13,2 hazi da EAEn. Zerbitzu sektoreak bilakaera nabarmentzen da (+% 14,4)

Azken 6 urteetan gertatu ez den moduan, 2020an gora egin du EAEn erregistratutako langabeen kopuruak. Azken urteetako beherazko joera gelditu egin da; 15.078 langabe gehiago erregistratu dira.5.512 langile gutxiago zenbatu ziren 2019an, 7.873 gutxiago 2018an; 8.626 gutxiago 2017an; 13.844 gutxiago 2016an; eta, azkenik, 15.754 gutxiago 2015ean. Autonomia Erkidegoan artean, bilakaera onena Melillan (+% 1,2) eta Gaztela-Mantxan (+% 9,4) izan da; okerrena, berriz, Balear (+% 38,0) eta Kanariar uharteetan (+% 29,4). EAE laugarren postuan kokatzen da, langabezia jaitsiera erlatibo txikiena izan duten Autonomia Erkidegoen artean.



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Sexuaren arabera, langabeziak bilakaera hobea izan du emakumezkoen artean (+% 11,7) gizonezkoen artean baino (+% 15,1).

Sektorearen arabera, balore erlatiboetan, bilakaera onena Eraikuntzaren sektorean gertatu da (+% 4,2); Lehen sektorek jarraitu dio (+% 8,2). Lehen enplegua oraindik izan ez dutenen artean langabezia % 14,5 hazi da.

Jardueraren arabera, ondorengoak dira bilakaera onena izan duten jarduerak: (i) Paper industria (-27); (ii) Altzarien fabrikazioa (-26); (iii) Kokea lortzeko eta petrolio fintzeko jarduerak (-21); (iv) Basogintza (-10); eta, azkenik, (v) Egur-industria (-10). Bestetik, bilakaera okerrena izan duten jarduerak hauek izan dira: (i) Janari eta edarien zerbitzuak (+2.366); (ii) Txikizkako merkataritza (+1.433); (iii) Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (+1.188); eta, azkenik, Eraikuntzako zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak (+575). Halaber, bilakaera okerrena krisialdian zehar gogor zigortutako jardueretan erregistratu da: batez ere, Ostalaritza- eta merkataritza-zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak.

Adinaren arabera. Beheko taulan ikus daitekeen bezala, langabeziaren bilakaerarik onena 55-64 urte bitarteko biztanleek izan dute (+% 7,6); ondoren, 35-44 urte bitartekoek (+% 11,0); jarraian, 45-54 urtekoek (+% 11,7); eta, azkenik, 45-54 urtekoek (+% 17,7). Beste muturrean, berriz, 16-24 urteko pertsonen kolektiboak izan du bilakaerarik txarrena (+% 35,9).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren kabinete Teknikoa

Lurralde historikoen arabera, 2019ko datuekin alderatuta, Bizkaiak izan du eboluzio onena 2020an (+% 12,2), ondoren Gipuzkoak (+% 13,6) eta, azkenik, Arabak (+% 16,1). **Eskualdeka**, nabarmentzekoa da, kopuru absolutuetan, langabeen kopuruak gora egin duela (i) Bilbon (+2.841); (ii) Vitoria-Gasteizen (+2.364); eta (iii) Ezkerraldean (+1.923). Hala ere, kopuru erlatiboetan, aipatzekoak dira ondorengo igoerak: (i) Arabar Mendialdea (+% 33,3), Gorbeia inguruak (+% 31,8) eta Arabar Lautada (+% 21,4). Eskualde bakar batean ere ez du behera egin langabeziak.

Jasotako prestazioaren arabera. Erregistratutako langabeen % 33,6k langabezia-prestazioa kobratzen du (2019an baino 0.1 puntu gehiago). Prestazioa kobratzen

duten langabeen % 53,7k kotizaziopeko prestazioa jasotzen du (aurreko urtean baino portzentajezko 5.2 puntu gutxiago); eta gainerako % 46,3k subsidioa edo GEA jasotzen du (aurreko urtean baino 6,1 puntu gehiago).

Langabeziaren iraupenaren arabera, iraupen laburreko langabetuen kopurua (+% 4,9) nahiz iraupen luzeko langabetuena (+% 22,0) hazi da. 2020. urtearen amaieran, iraupen luzeko langabeen kopurua 67.516 izan da; iraupen laburreko langabeen kopurua, berriz, 61.724 izan da.

Nazionalitatearen arabera. Langabeen % 15,8k atzerriko nazionalitatea du (2019ko datua baino 0,3 puntu baxuagoa). Azken urtean zehar, bertako langabeen kopuruak % 13,7 egin du gora; eta atzerriko langabeen kopuruak, berriz,% 10,9. EAEko biztanle langabetuen artean, atzerritarren kolektiboak pisu handia du, kontuan hartuta biztanleria osoaren % 8,4 izan dela 2020an (2019an baino ehuneko 0,8 puntu gehiago), Eustatek argitaratutako biztanleen udal-estatistikaren arabera. Nagusiki bi arrazoi nagusi daude azaltzeko LANBIDEn izena emanda dauden atzerritarren presentzia handia: (i) bata, beharrezkoa da enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea DSBE bezalako laguntzak eskuratzeko, EAEn ezarpen handia duena; eta bestea (ii) atzerritartasuna izateak askotan zailtasuna dakar lan-merkatuan sartzeko. Atzerriko langabeen artean, Latinoamerikako (+962) eta Afrika iparraldeko (+386) nazionalitatea duten langabeen kopuruak gora egin du.

Ikasketa mailaren arabera. 2020ko abenduan, langabetuen % 59,9k oinarrizko ikasketak zituen; % 18,4k Lanbide heziketako ikasketak; % 12,6k unibertsitateko ikasketak eta gainerako % 9,0k batxilergoko ikasketak. 2020ko datuei dagokienez, langabeen igoera handiena, balore absolutuetan, oinarrizko ikasketetan izan da (+7.507 langabe gehiago), eta ondoren, Lanbide Heziketako ikasketetan (+3.708 langabe).

Gizarte Segurantzako afiliazioa

2020an, Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopuruak % 2,2an egin du behera, aurreko urtearekin alderatuz; 959.132 pertsonarekin itxi da urteko datua.

2020an zehar, COVID-19aren ondorioz, 2014 urtean hasitako afiliazioaren errekuperazioa gelditu egin da. 2020. urtearen amaieran 959.132 afiliatu zeuden, aurreko urtean baino 21.460 pertsona gutxiago (-% 2,2) eta 2013. urtean baino 83.971 pertsona gehiago (+% 9,6). 2020 amaieran, afiliatu kopurua 2008ko uztailean lortutako maximo historikotik 23.803 pertsonara dago, krisi aurreko garaian lortutako datua.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuaren arabera, gizonezko afiliatuak 499.045 izan dira (2019an baino 12.731 gutxiago); eta emakumezko afiliatuak, berriz, 460.085 (aurreko urtean baino 8.730 gutxiago). Emakumeak afiliatuen % 48,0 dira, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago. Krisiaren hasieran, emakumeak afiliatu guztien % 42 baino ez ziren. 2008 krisian zehar eta azken osasun krisian zehar, jarduera oso maskulinoek okerrera egin dutenez, eta lan-merkatuan emakume gehiago daudenez, gora egin du afiliatutako emakumeen proportzioak.

Jardueraren arabera, hurrengo jarduerek izan dute bilakaera okerrena 2020an, 2019. urtearen aldean: (I) ostalaritza (-7.081); (ii)
Manufaktura-industria (-6.569); (iii) Txikizkako eta handizkako merkataritza, motordun ibilgailuen konponketa (-2.770); (iv) Beste zerbitzuak (-2.578); (v) Aisialdiko jaruderak (-1.891). Beste muturrean, berriz, osasun jarduerak izan du afiliatu kopuruan hazkunde handiena (+2.990).

Lurralde historikoaren arabera. 2020ko abenduan, Bizkaiak afiliatu guztien % 50,2 izan du; Gipuzkoak % 33,5; eta Arabak % 16,3. Aurreko urtearekin alderatuz, balore erlatiboetan, Arabak izan du murrizketa handiena (-% 3,2); ondoren, Gipuzkoak eta Bizkaiak (-% 2,0 bi kasuetan). Afiliazio murrizketa handiena izan duten jarduerak hauek izan dira. Araban: (i) Manufaktura-industria (-1.440); (ii) Ostalaritza (-1.275); eta, azkenik, (iii) Beste zerbitzuak (-799). Gipuzkoan: (i) Ostalaritza (-2.681) (ii) Manufaktura-industria (-2.068); eta, azkenik, (iii) Txikizkako eta handizkako merkataritza, motordun ibilgailuen konponketa (-1.195). Eta bukatzeko, Bizkaian: (i) Ostalaritza (-3.125); (ii) Manufaktura-industria (-3.061); eta (iii) Txikizkako eta handizkako merkataritza, motordun ibilgailuen konponketa (-1.613).

Nazionalitatearen arabera. 2020an zehar, atzerritarren multzoak afiliazioaren % 7,2 izan da. Aurreko urteko datuen aldean, afiliatu atzerritarren kopurua % 1,0 murriztu da eta bertakoena, aldiz, % 2,3. Atzerritar afiliatuen artean, gehiago murriztu da emakumezkoen kopurua (-% 1,7) gizonezkoena baino (-% 0,5). Lurralde historikoaren arabera, atzerritarren murrizketa handiena Gipuzkoak izan du (-% 3,2); ondoren, Arabak (-% 2,5); Bizkaia izan da hazkunde erregistratu duen lurralde bakarra (+% 1,2). Bukatzeko, Europar Batasunetik kanpo etorritako atzerritarren afiliazioa hazi egin da (+% 1,9) eta Europar Batasunetik etorritakoena, aldiz, murriztu (-% 7,7).

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

2020an, 245.312 pertsonak 703.355 kontratu sinatu dituzte (iaz baino % 30,2 gutxiago)

Kontratatutako pertsonak. 2020an zehar, 245.312 pertsonak sinatu dute EAEko lanpostu baterako kontraturen bat; alegia, 2019an baino % 32,4 gutxiago. Murrizketa handiagoa izan da gizonezkoen artean (- % 21,9), emakumezkoen artean baino (- % 20,0). 2020an, emakumeak kontratatutako pertsonen % 47,9 izan dira (aurreko urtean baino ehuneko 0,6 puntu gehiago).

Adinaren arabera. Kontratatutako pertsona gehien biltzen dituen adin tartea 25-34 urte artekoa izan da (kontratatutako pertsona guztien % 28,3); gero, 35-44 urte arteko tartea (% 24,5); ondoren, 45-54 urte artekoa (% 19,8), 24 urte azpikoena (% 18,7); eta, azkenik, 55 urte gorakoen tartea dago (% 8,6). Balore absolutuetan, murrizketa handiena erregistratu den adin tartea 35-44 urtekoa izan da, % 22,3 pertsona gutxiago; aldiz, 55 urte gorakoen tartea izan da gutxien murriztu dena, % 15,4.

Nazionalitatearen arabera. Kontratatutako pertsonen % 17,6 atzerritarrak izan dira, % 19,8 gizonezkoen artean eta % 15,3 emakumezkoen artean. Atzerritarren artean, gehien nabarmentzen den taldea latinoamerikarrena da (% 41,6); ondoren, Europa erkidegotik nahiz erkidegoz kanpotik etorritakoak (% 22,7); eta, azkenik, Afrika iparraldetik etorritakoak (% 14,8).

Errotazio-tasa. 2020ko errotazio-tasa 2,9koa izan da, aurreko urtekoa baino 0,3 puntu apalagoa. Portzentajea 2,8koa da gizonezkoen kasuan eta 3koa emakumezkoen kasuan.

Sinatutako kontratuak. 2020an zehar, 703.355 kontratu sinatu dira EAEn, aurreko urtean baino % 30,2 gutxiago. Sexuaren araberako banaketa oso orekatua da: kontratuen % 50,6 gizonezkoek sinatu dituzte eta gainontzeko % 49,4 emakumezkoek. Atzerritarrek sinatutako kontratuak kontratu guztien % 14,9 izan dira (aurreko urtekoa baino 1 puntu altuagoa).

Lurralde historikoaren arabera. Kontratuen % 51,4 Bizkaian sinatu dira; Gipuzkoan % 29,5; eta Araban % 19,1. Hala ere, aurreko urtearen aldean, Araban izan da murrizketa erlatibo handiena (- % 30,8); ondoren, Bizkaian (- % 30,6); eta, azkenik, Gipuzkoan (- % 29,3).

Jardueraren arabera. Kontratu kopururik nagusiena ondorengo jardueretan izan da: manufaktura-industrian (% 14,8); osasun jardueretan eta giza-zerbitzuetan (% 14,7); merkataritzan (% 13,2); jarduera administratiboetan (% 11,1); eta, azkenik, ostalaritzan (% 9,4).

Okupazio taldearen arabera. Nabarmentzen dira, batetik, kontratuak inolako kualifikaziorik gabeko lanbide-profiletarako kontratuak (% 33,1); eta, bestetik, zerbitzuen sektoreko profil kualifikatuetarako ere (% 27,8). Gainerako kontratuak lanpostu hauek betetzeko sinatu dira: teknikari eta profesional zientifikoak (% 12,1); laguntzako teknikariak eta profesionalak (% 7,8); operadoreak (% 6,9); administrazioko langileak (% 6,1); industriaren sektoreko profil kualifikatuak (% 5,9); lehen sektoreko profil kualifikatuak (% 0,3); eta, azkenik, zuzendaritza-postuak (% 0,2).

Kontratu motaren arabera. Kontratu mugagabeen pisua % 8,53koa izan da (aurreko urtean baino ehuneko 0,2 puntu altuagoa). Aldi baterako kontratuen pisua, berriz, % 91,5ekoa izan da. Kontratu mugagabeei dagokienez, % 50,3 gizonenak izan dira, eta % 49,7 emakumezkoenak. Aldi baterako kontratuei dagokienez ere, sexuaren araberako banaketa oso parekatua izan da (kontratuen % 50,6 gizonezkoek sinatu dituzte eta gainontzeko % 49,4a emakumezkoek). Sinatutako kontratu guztiak kontuan hartzen baditugu, % 38,2 partzialak izan

dira (% 25,6 gizonek sinatuak eta % 51,1 emakumeek sinatuak).Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, azken urtean aldatu egin da kontratazio-modalitate horren pisua (aurreko urtean erregistratutako tasa baino 2 puntu baxuagoa da aurten). 2011. urtea erreferentziatzat hartzen badugu, lanaldi partzialeko kontratuen pisua ehuneko 3,1 puntu igo da (% 35,1etik 2011.urtean, % 38,2ra pasatu da 2020an).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Zenbaki absolutuetan, 2020an, EAEn, 59.448 kontratu mugagabe sinatu dira; aldi baterako kontratuak, aldiz, 643.907 izan dira. Hala ere, k**ontratu mugagabeen** pisua baxua izateak (kontratu guztien % 8,5) ez du esan nahi kopurua murritza denik. Izan ere, kontratu mugagabeak egonkorrak izango balira, urte gutxitan aldi baterako kontratuak dituzten pertsona kopuruak behera egingo luke nabarmen. Baina hori ez da horrela, eta, kasu askotan, kontratu mugagabe bat sinatzeak ez dakar berekin enpleguaren egonkortasuna.

Hurrengo lerroetan, EAEko kontratu mugagabeak sakon aztertuko ditugu:

Adinaren arabera. Kontratu mugagabeen pisu handiena duen taldea 25-34 urte tartekoena izan da (adin tarte horretako kontratu guztien artean, kontratu mugagabeak % 9,2 izan dira). Ondoren, 35-44 adin tartea (% 9) eta 54 urtetik gorakoena (% 8,8) daude. Azkenik, 24 urtetik azpikoen taldeak izan du kontratu mugagabeen pisurik baxuena (% 5,9).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Okupazio taldearen arabera. Kontratu mugagabeen pisurik handiena zuzendarien taldeak izan du (okupazio talde honen kontratu guztien artean kontratu mugagabeak % 58,7 izan dira). Pisu txikiena, aldiz, zerbitzu sektorean kualifikatuen artean izan da (% 6,5). Bi mutur horien artean, berriz, ondorengo perfilak ditugu: (i) administrariak (% 14,3); (ii) laguntzako teknikariak eta profesionalak (% 12,2); (iii) nekazaritzan eta arrantzan kualifikatutako langileak (% 11,6); (iv) operadoreak (% 10,3); (v) manufakturako, eraikuntzako eta meatzaritzako artisauak eta langile kualifikatuak (% 9,4); (vi) teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak (% 9,4); eta, azkenik, eta (vii) langile kualifikatu gabeak (% 6,8).

Jardueraren arabera. Alde batean uzten baditugu 2020an zehar 300 kontratu baino gutxiago izan dituzten jarduerak, kontratu mugagabeen pisurik handiena etxeetako jardueretan izan da (% 46,6), eta, ondoren, higiezinen jardueretan (% 23,2). Pisu txikiena, aldiz, jarduera hauek izan dute: Administrazio Publikoa (% 1,2); eta osasun- eta zerbitzu-jarduerek (% 3,8).

Nazionalitatearen arabera. Kontratu mugagabeek pisu handiagoa dute atzerritarren artean (% 11,8), bertakoen artean baino (% 7,9). Kontratu mugagabeen % 20,7 atzerritarrek sinatu dituzte (aurreko urtean baino 2,1 puntu altuagoa).

Enplegua Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) inkestaren arabera

Iazko datuen aldean, 2020an zehar, enplegua % 2,0 murriztu da, landunak 930.500 dira eta enplegu-tasa % 49,8koa

2020ko laugarren hiruhilekoan, 930.500 landun zeuden (aurreko urteko hiruhilekoan baino % 2,0 gutxiago). Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, azken urteetako okupazioaren bilakaera positiboa COVID-19aren ondorioz gelditu egin da. Hala ere, 2020 urte amaieran 2014an baino 44.100 landun gehiago daude (+% 5,0).



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta

Adin tartearen arabera. 2019ko datuekin alderatuta, 16-24 urte tarteko kolektiboak izan du bilakaerarik onena termino erlatiboetan (+6.200 landun, +% 18,3); 55 urtetik gorako kolektiboak jarraitu dio (+7.000 landun, +% 3,5). Gainontzeko taldeetan landun kopuruak behera egin du: 16.300 landun gutxiago 35-44 adin tartean (-% 6,1), 14.500 landun gutxiago 25-34 adin tartean (-% 8,8) eta 100 landun gutxiago 45-54 adin tartean (-% 0,4). 2008. urtearekin alderatuta (krisiaren hasiera), ikusten da enplegua murriztu egin dela adin piramidearen beheko aldean (170.000 landun gutxiago 45 urte azpikoen artean), aldiz, piramidearen goiko aldean hazi egin da (124.000 landun gehiago 45 urte gorakoen artean). Adin araberako bereizketa horrek lotura zuzena du 2008-2020 urte arteko populazioaren bilakaerarekin: 45 urte azpiko 156.200 pertsona gutxiago daude; eta 169.300 pertsona gehiago 45 urte baino gehiagokoen artean.

Sexuaren arabera. Enplegua gutxiago murriztu da emakumezkoen artean (- 3.200), gizonezkoen artean baino (- 15.300). Ildo horretan, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, azken 5 urteetan hasitako joera gelditu egin da bi sexuetan. Urte honetan izandako landunen artean % 48,1 emakumezkoak izan dira (iaz baino 0,6 puntu altuagoa). Enplegu tasari dagokionez, gizonezkoena % 53,8koa da eta emakumezkoena % 46,1ekoa (7,7 puntu baxuagoa gizonezkoena baino). Azken urtean gizonezkoen enplegu tasa 2,0 murriztu da; eta emakumezkoena, berriz, 0,6 puntu.



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta

Lurralde historikoaren arabera. Arabak lortu du enplegu-tasarik onena (% 52,3); ondoren, Gipuzkoak (% 51,3); eta, azkenik, Bizkaiak (% 48,2). Ildo horretan, Bizkaiko enplegu tasa EAEko batez bestekoaren (% 49,8) azpitik geratu da. Gainerako lurraldeetan, berriz, enplegu-tasa EAEko batez bestekoa baino handiagoa da. Landunen kopuruak termino erlatibotan izan duen bilakaerari dagokionez, Gipuzkoak izan du murrizketarik handiena (-% 2,3); ondoren Bizkaiak (-% 2,0); eta, azkenik, Arabak (-% 1,1).

Jardueraren arabera. 2020. urtearen amaieran, zerbitzu sektoreak bildu du landun guztien % 72,5; industriak % 21,4; eraikuntzak % 5,3; eta lehen sektoreak % 0,8. Aurreko urteko datuekin alderatuta, landunen pertsonen gorakada izan duen sektore bakarra eraikuntza sektorea izan da (+ 200). Honako sektore hauetan egin du behera landunen kopuruak: (i) Zerbitzuak (-14.800); (ii) Industria (-3.400); eta (iii) Lehen sektorea (-500).

Enplegu-tasa. 2020an, enplegu-tasa % 49,8koa izan da (iaz baino 1,3 puntu baxuagoa, eta 2014koa baino 1,4 puntu altuagoa). EAEko tasa, estatukoa (% 48,8) baino puntu bat altuago izan da. Horrela, Estatistika Institutu Nazionalaren (hemendik aurrera EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera (hemendik aurrera BAI), erkidegoen arteko konparaketa egiteko erabilitako iturria, EAEk izan du estatuko 7. tasa altuena; Madrilgo Erkidegoan erregistratu da altuena (% 54,8) eta Ceutan baxuena (% 41,1).

EAEko **aldi baterako soldatapekoen tasa** % 21,6koa izan da, EINren BAIren arabera (Eustaten datu faltagatik erabilitako iturria) estatuko batez bestekoa baino 2,0 puntu baxuagoa. Estatuan, tasa baxuena izan duten Autonomia Erkidegoak Madril eta Katalunia izan dira (% 19,8 bi kasuetan); altuena izan dutenak, ordea, Extremadura (% 35,7); eta Andaluzia (% 34,0) izan dira.

Kontratu motaren arabera, EAEko lanaldi partzialeko enplegu tasa %15,8koa izan da, EINren BAIren arabera (Estatukoa baino 1,3 puntu altuagoa). Gizonezkoen lanaldi partzialen tasa ehuneko 1,1 puntu murriztu da; emakumezkoen artean, aldiz, tasa 2,3 puntu. Iazko joera mantendu egiten da. Izan ere, emakumezkoen artean handiago da lanaldi partzialean dagoen landun kopurua (% 26,2) gizonezkoen artean baino (% 6,2).

Borondatezkoa ez den lanaldi partzialaren tasa (prekarietate adierazlea). EAEn, 2020an, **borondatezkoa ez den lanaldi partzialaren tasa** % 50,4koa izan da (aurreko urtekoa baino 0.5 puntu baxuagoa), EINren BAIren arabera, Estatukoa baino 3,0 puntu baxuagoa.

Langabezia Eustaten BJA inkestaren arabera

2020. urtearen bukaeran langabezia-tasa % 11,2koa izan da (1,7 puntu apalagoa 2019koa baino), eta 116.900 langabe daude

2020 amaieran, 116.900 langabe zenbatu ziren EAEn. Aurreko urtearekiko, hazkundea 17.400 pertsonakoa izan da, % 17,5eko hazkundea kopuru erlatiboetan.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, EAEko langabezia tasaren eboluzioa positiboa gelditu egin da COVID-19aren ondorioz. 2020 bukaeran erregistratutako tasa % 11,2koa izan da (1,7 puntu altuagoa izan da aurreko urtekoa baino); hala ere, 2014koa baino apalago mantendu da (4,6 baxuagoa). Estatu mailan, EINren BAIren arabera, % 16,1ekoa izan da langabezia tasa (EAEkoa baino 4,9 puntu altuagoa).



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta

Sexuaren arabera. Emakumeen artean 2.600 pertsona gehiago daude langabezian (+% 5,0); eta gizonen artean, berriz, 14.800 gehiago (+% 31,0). Gaur egun, langabeen % 46,4 emakumeak dira (duela urtebete kopuru hori % 50,0ekoa zen). Gizonen langabezia-tasa emakumezkoena baino altuagoa izan da (% 11,5 eta % 10,8, hurrenez hurren). Ildo horretan, aipatu behar da azken urteko langabezia-tasaren bilakaera okerragoa izan dela gizonentzat (+% 2,7) emakumeentzat baino (+% 0,5).

Adinaren arabera. Aurreko urtearekin alderatuta, 16-24 urteko kolektiboa izan da gorakada handiena izan duena (+% 30,6; +3.000 langabe); ondoren, 24-45 adin tartea (+% 18,4; +9.400 langabe); azkenik, 45 urte gorakoen kolektiboa (+% 13,2 +5.100 langabe). Langabeen erdiak baino gehiagok, % 51,8k, 25-44 urte arten dituzte.

Lurralde Historikoaren arabera. Langabezi-tasari dagokionez, Gipuzkoak du egoerarik onena (% 9,4); ondoren, Arabak (% 10,1) eta, azkenik, Bizkaiak (% 12,6). Eta 2019. urtearen aldean, bilakaera onena Araban izan da (-% 0,1). Gipuzkoan eta Bizkaian langabezia-tasa hazi egin da (+%2,2 eta +%1,9 hurrenez hurren). Egoera okertu egin da, eta, beraz, langabezia maila krisi aurreko datuetatik aldendu egin da.

Nazionalitatearen arabera. Atzerritarren langabezia-tasa bertakoena baino altuagoa izan da (% 29,4 vs % 9,3). EINren BAIren arabera (Eustaten datu faltagatik), Europar Erkidegotik kanpoko nazionalitatea duten atzerritarrek erregistratu dute langabezia-tasa altuena, % 21,3. Europar Erkidegoko nazionalitatea duten atzerritarrek, aldiz, % 12,2ko tasa erregistratu dute.

Langabeziaren iraupenaren arabera. EINren BAIren arabera, langabeen % 24,9k 2 urte baino gehiago daramatza egoera horretan eta % 13,0k 1 eta 2 urte artean. Beraz, langabeen % 37,9 epe luzeko langabeak dira (8,1 puntu baxuagoa aurreko urteko portzentajea baino).

Ikasketa mailaren arabera. **L**angabeen % 27,5ek oinarrizko ikasketak ditu, derrigorrezko ikasketak gehienez (bertan daude ikasketa gabeak ere). Langabeen % 26,9k goi mailako ikasketak ditu. Gainontzeko % 45,7k batxilergoko edo erdi mailako Lanbide Heziketako ikasketak ditu.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, langabezia-tasa handiena derrigorrezko bigarren hezkuntzara arteko ikasketak dituzten pertsonen artean eman da (ikasketarik gabeko pertsonak barne); lortutako tasa % 14,1 izan da. Erdi-mailako lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen artean ere, langabezia-tasa batezbestekoa baino altuagoa izan da: % 11,2.

Maila akademiko handiko pertsonek dute langabezia-tasa txikiena (goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo unibertsitate-ikasketak); langabezia-tasa % 7,2koa da.



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta

Jarduera sektorearen arabera. 2020. urtearen amaierako egoera hurrengoa da: % 63,9 zerbitzuen sektoretik dator; Industriatik % 16,3; Eraikuntza sektoretik % 9,2; eta gainerako % 0,9 lehen sektoretik.

Eranskina- Taulak

Erregistratutako langabezia

Langabetu kopurua		2020ko abendua			2019ko abendua			Urteko al-dakuntza	% Urteko aldakuntza
		Gizon	Emakume	Guztira	Gizon	Emakume	Guztira	Guztira	Guztira
Langabetuak guztira, EAE		58,898	70,342	129,240	51,168	62,994	114,162	15,078	13.2%
Adina	16 - 24 urte	5,730	4,978	10,708	4,161	3,718	7,879	2,829	35.9%
	25 - 34 urte	11,053	12,958	24,011	9,111	11,29	20,401	3,610	17.7%
	35 - 44 urte	13,256	17,472	30,728	11,924	15,755	27,679	3,049	11.0%
	45 - 54 urte	14,873	17,187	32,06	13,338	15,373	28,711	3,349	11.7%
	55 - 64 urte	13,986	17,747	31,733	12,634	16,858	29,492	2,241	7.6%
LH	Araba	9,650	12,077	21,727	8,175	10,547	18,722	3,005	16.1%
	Gipuzkoa	15,545	18,888	34,433	13,185	17,138	30,323	4,11	13.6%
	Bizkaia	33,703	39,377	73,080	29,808	35,309	65,117	7,963	12.2%
Eskualdeak	Bidasoa Behea	1,901	2,473	4,374	1,686	2,295	3,981	393	9.9%
	Oarsoaldea	1,763	2,074	3,837	1,547	1,872	3,419	418	12.2%
	Donostia-S.Seb.	4,018	4,661	8,679	3,268	3,978	7,246	1,433	19.8%
	Donost.mende.	1,493	1,870	3,363	1,303	1,640	2,943	420	14.3%
	Tolosaldea	954	1,242	2,196	793	1,142	1,935	261	13.5%
	Urola Erdia	636	755	1,391	538	732	1,27	121	9.5%
	Goiherri	799	985	1,784	635	953	1,588	196	12.3%
	Debagoiena	1,270	1,436	2,706	1,079	1,357	2,436	270	11.1%
	Debabarrena	1,296	1,682	2,978	1,179	1,619	2,798	180	6.4%
	Urola Garaia	584	657	1,241	496	604	1,100	141	12.8%
	Urola Kosta	831	1,053	1,884	661	946	1,607	277	17.2%
	Vitoria-Gasteiz	7,438	9,382	16,82	6,314	8,142	14,456	2,364	16.4%
	Aiaraldea	1,113	1,401	2,514	990	1,336	2,326	188	8.1%
	Arabako Errioxa	337	432	769	301	355	656	113	17.2%
	Arabako Lautada	382	430	812	284	385	669	143	21.4%
	Gorbeialdea	164	176	340	123	135	258	82	31.8%
	Arabako bailarak	195	264	459	168	218	386	73	18.9%
	Arabako mendiak	68	60	128	49	47	96	32	33.3%
	Gobela	2,378	2,847	5,225	2,105	2,518	4,623	602	13.0%
	Txorierri	1,158	1,308	2,466	930	1,105	2,035	431	21.2%
	Uribealdea	1,615	1,792	3,407	1,348	1,613	2,961	446	15.1%
	Durangaldea	1,761	2,175	3,936	1,569	1,941	3,51	426	12.1%
	Busturialdea	1,143	1,305	2,448	1,051	1,208	2,259	189	8.4%
	Lea-Artibai	581	594	1,175	490	521	1,011	164	16.2%
	Enkarterriak	935	1,24	2,175	868	1,167	2,035	140	6.9%
	Arratia-Zornotza	772	910	1,682	693	838	1,531	151	9.9%
	Nerbioi Erdia	663	787	1,45	569	725	1,294	156	12.1%
	Bilbao	11,573	13,569	25,142	10,238	12,063	22,301	2,841	12.7%
	Ezkerraldea	8,857	9,995	18,852	7,934	8,995	16,929	1,923	11.4%
	Ibaizabal	2,219	2,786	5,005	1,958	2,542	4,500	505	11.2%

Iraupena	Iraupen luzeko langabeak	27,437	40,079	67,516	21,736	33,608	55,344	12,172	22.0%
	Iraupen laburreko langabeak	31,461	30,263	61,724	29,432	29,386	58,818	2,906	4.9%
Sektoreak	Lehen sektorea	1,949	765	2,714	1,808	701	2,509	205	8.2%
	Eraikuntza	7,595	1,047	8,642	7,268	1,027	8,295	347	4.2%
	Industria	10,755	5,247	16,002	9,269	5,057	14,326	1,676	11.7%
	Zerbitzuak	32,983	53,358	86,341	28,253	47,204	75,457	10,884	14.4%
	Aurrez enplegurik izan gabe	5,616	9,925	15,541	4,57	9,005	13,575	1,966	14.5%
Jarduerak	01 Nekazaritza, abeltzaintza	1,634	707	2,341	1,496	648	2,144	197	9.2%
	02 Basogintza eta basoen ustiaketa	190	43	233	204	39	243	-10	-4.1%
	03 Arrantza eta akuikultura	125	15	140	108	14	122	18	14.8%
	05 Antrazita, harrikatza, lignitoaren erauzketa	0	3	3	2	2	4	-1	-25.0%
	06 Petrolio gordinaren, gas naturalaren erauzketa	6	7	13	5	8	13	0	0.0%
	07 Mineral metalikoen erauzketa	5	2	7	3	3	6	1	16.7%
	08 Beste erauzketa-industria batzuk	26	6	32	19	10	29	3	10.3%
	09 Erauzketa-industrietan laguntzeko jarduerak	6	3	9	3	4	7	2	28.6%
	10 Elikadura-industria	807	1,106	1,913	707	1,052	1,759	154	8.8%
	11 Edarien fabrikazioa	130	81	211	115	53	168	43	25.6%
	12 Tabako-industria	5	21	26	9	24	33	-7	-21.2%
	13 Ehungintza-industria	48	153	201	42	153	195	6	3.1%
	14 Jantzigintza	27	163	190	32	159	191	-1	-0.5%
	15 Larrugintza eta oinetakogintza	16	28	44	14	35	49	-5	-10.2%
	16 Zuraren eta kortxoaren industria	314	63	377	328	59	387	-10	-2.6%
	17 Papergintza	115	76	191	125	93	218	-27	-12.4%
	18 Arte grafikoak eta euskarri grabatuak	236	251	487	223	247	470	17	3.6%
	19 Kokeriak eta petrolioa fintzea	13	6	19	34	6	40	-21	-52.5%
	20 Industria kimikoa	279	173	452	248	175	423	29	6.9%
	21 Farmazia-produktuen fabrikazioa	39	41	80	37	35	72	8	11.1%
	22 Kautxuzko produktuen fabrikazioa	576	339	915	559	347	906	9	1.0%

23 Mineral ez-metalikoen fabri-kazioa	240	84	324	203	96	299	25	8.4%
24 Metalurgia; burdina, altzairua, ferroaleazioak	1,310	298	1,608	1,065	320	1,385	223	16.1%
25 Produktu met-alikoak, makinak izan ezik	2,601	777	3,378	2,18	706	2,886	492	17.0%
26 Produktu in-formatiko, elektro-niko,optikoak	146	107	253	118	87	205	48	23.4%
27 Material eta tresneria elektri-koen fabrikazioa	401	285	686	352	311	663	23	3.5%
28 Sailkatu ga-beko makinerien fabrikazioa	861	284	1,145	679	255	934	211	22.6%
29 Ibilgailu mo-tordunak eta atoiak	736	253	989	530	188	718	271	37.7%
30 Garraiorako bestelako materi-ala fabrikatzea	383	78	461	325	64	389	72	18.5%
31 Altzarigintza	186	101	287	201	112	313	-26	-8.3%
32 Beste manu-faktura-industria batzuk	161	166	327	169	162	331	-4	-1.2%
33 Makinak eta ekipoak konpon-tzea, instalatzea	520	136	656	450	132	582	74	12.7%
35 Energia elek-trikoaren horni-dura	40	13	53	37	19	56	-3	-5.4%
36 Uraren bil-keta, arazketa eta banaketa	35	25	60	29	16	45	15	33.3%
37 Hondakin-uren bilketa eta tratamendua	8	4	12	6	6	12	0	0.0%
38 Hondakinak biltzea, tratatzea, deuseztatzea	469	111	580	411	114	525	55	10.5%
39 Hondakinen deskontaminazioa	10	3	13	9	4	13	0	0.0%
41 Eraikinen erai-kuntza	2,659	360	3,019	2,544	340	2,884	135	4.7%
42 Ingeniaritza zi-bila	336	42	378	332	37	369	9	2.4%
43 Eraikuntza es-pezializatuko jar-duerak	4,6	645	5,245	4,392	650	5,042	203	4.0%
45 Ibilgailu mo-tordunen sal-menta, konpon-keta	857	336	1,193	752	337	1,089	104	9.6%
46 Handizkako merkataritza	2,393	1,804	4,197	2,155	1,637	3,792	405	10.7%
47 Txikizkako merkataritza	2,932	9,837	12,769	2,590	8,746	11,336	1,433	12.6%
49 Lurreko eta tutueria bidezko garraioa	1,337	353	1,690	1,126	317	1,443	247	17.1%
50 Itsas garraioa	85	56	141	81	49	130	11	8.5%

	51 Aireko garraioa	54	59	113	45	47	92	21	22.8%
	52 Biltegiratzea, garraioaren jarduera erantsiak	533	243	776	408	235	643	133	20.7%
	53 Posta-jarduerak	422	276	698	380	235	615	83	13.5%
	55 Ostatu-zerbitzuak	512	991	1,503	377	864	1,241	262	21.1%
	56 Janari- eta edari-zerbitzuak	4,644	8,113	12,757	3,541	6,850	10,391	2,366	22.8%
	58 Argitalpena	109	163	272	88	130	218	54	24.8%
	59 Zinematografiako eta bideoko jarduerak	315	276	591	247	216	463	128	27.6%
	60 Irrati-telebistako programazioa, emanaldia	40	30	70	33	20	53	17	32.1%
	61 Telekomunikazioak	201	158	359	202	166	368	-9	-2.4%
	62 Programazioa, aholkularitza, informatika	479	439	918	373	401	774	144	18.6%
	63 Informazio-zerbitzuak	87	73	160	88	57	145	15	10.3%
	64 Finantza-zerbitzuak	240	288	528	227	261	488	40	8.2%
	65 Aseguruak, berraseguruak, pentsio-funtsak	69	112	181	71	112	183	-2	-1.1%
	66 Finantza-zerbitzuen jarduera osagarriak	56	183	239	58	164	222	17	7.7%
	68 Higiezinen jarduerak	125	283	408	125	257	382	26	6.8%
	69 Zuzenbidea eta kontabilitatea	217	532	749	178	501	679	70	10.3%
	70 Egoitza nagusiak; enpresa-kudeaketa	150	284	434	129	267	396	38	9.6%
	71 Arkitektura, ingeniaritza; azterketa teknikoak	650	474	1,124	519	396	915	209	22.8%
	72 Ikerketa eta garapena	182	243	425	142	236	378	47	12.4%
	73 Publizitatea eta merkatu-azterlanak	399	918	1,317	353	826	1,179	138	11.7%
	74 Beste jarduera profesional zientifiko, tekniko	727	1,377	2,104	694	1,407	2,101	3	0.1%
	75 Albaitaritza-jarduerak	11	35	46	14	31	45	1	2.2%
	77 Alokairu-jarduerak	368	280	648	345	248	593	55	9.3%
	78 Enpleguari lotutako jarduerak	4,732	3,370	8,102	4,034	2,880	6,914	1,188	17.2%
	79 Bidaia-agentzien jarduerak	84	231	315	84	174	258	57	22.1%
	80 Segurtasun- eta ikerketa-jarduerak	525	185	710	517	152	669	41	6.1%

	81 Eraikinetako eta lorezaintzako zerbitzuak	1,992	3,959	5,951	1,708	3,668	5,376	575	10.7%
	82 Bulegoko jarduera administratiboak	869	1,211	2,080	716	1,016	1,732	348	20.1%
	84 Herri-administrazioa Gizarte Segurantza	1,548	1,633	3,181	1,53	1,603	3,133	48	1.5%
	85 Hezkuntza	1,049	2,495	3,544	868	2,133	3,001	543	18.1%
	86 Osasun-jarduerak	192	1,228	1,420	194	1,182	1,376	44	3.2%
	87 Laguntza ematea egoitzetan	321	1,771	2,092	285	1,617	1,902	190	10.0%
	88 Gizarte-zerbitzuen jarduerak, ostatu gabe	633	1,556	2,189	576	1,413	1,989	200	10.1%
	90 Sortze- eta arte-jarduerak	376	235	611	301	189	490	121	24.7%
	91 Liburutegiak, artxibategiak eta museoak	50	79	129	54	62	116	13	11.2%
	92 Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak	90	128	218	81	115	196	22	11.2%
	93 Kirol- eta jolas-jarduerak	744	731	1,475	575	615	1,19	285	23.9%
	94 Elkarteen jarduerak	522	836	1,358	442	690	1,132	226	20.0%
	95 Ordenagailuen konponketa	100	89	189	87	75	162	27	16.7%
	96 Beste zerbitzu pertsonal batzuk	450	1,809	2,259	393	1,499	1,892	367	19.4%
	97 Langileak enplegatzen dituzten etxeak	490	3,559	4,049	452	3,076	3,528	521	14.8%
	98 Ondasun,zerbitzuak produzitzen diren etxeak	6	16	22	2	14	16	6	37.5%
	99 Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak	16	21	37	13	18	31	6	19.4%
Ikasketak	Derrigorrezko hezkuntzaraino	37,076	40,356	77,432	33,224	36,701	69,925	7,507	10.7%
	Batxilergoa	5,157	6,532	11,689	4,389	5,614	10,003	1,686	16.9%
	Lanbide Hezik.	10,720	13,070	23,790	8,574	11,508	20,082	3,708	18.5%
	Unibertsitate.	5,945	10,384	16,329	4,981	9,171	14,152	2,177	15.4%
Nazionalitatea	Europako Erkidegoa	1,812	2,211	4,023	1,667	1,977	3,644	379	10.4%
	Erkidez kanpoko Europa	121	273	394	116	248	364	30	8.2%
	Txina	49	45	94	24	31	55	39	70.9%
	Japonia	2	3	5	1	3	4	1	25.0%
	Asia gainerakoa	503	568	1,071	467	536	1,003	68	6.8%
	Saharaz hegoaldeko Afrika	1,561	1,26	2,821	1,608	1,162	2,770	51	1.8%
	Afrika iparraldea	3,217	3,566	6,783	3,008	3,389	6,397	386	6.0%
	Ipar Amerika	17	18	35	11	16	27	8	29.6%
	Latinoamerika	1,699	3,133	4,832	1,375	2,495	3,87	962	24.9%

	Ozeania	5	1	6	3	1	4	2	50.0%
	Besterik	7	10	17	5	3	8	9	112.5%
	Aberrigabea	135	219	354	106	183	289	65	22.5%
	Atzerritarrak, guztira	9,128	11,307	20,435	8,391	10,044	18,435	2	10.8%
	Espainiako estatua	49,77	59,035	108,805	42,777	52,95	95,727	13,078	13.7%
Prestazioak	Subsidioa	8,482	9,387	17,869	6,327	7,428	13,755	4,114	29.9%
	GEA	1,124	1,081	2,205	1,006	973	1,979	226	11.4%
	Prestazioa	12,463	10,845	23,308	11,879	10,684	22,563	745	3.3%

Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Gizarte Segurantzako Afiliazioa

	Gizarte Segurantzan afiliatu kopurua (hileko bataz beste-koa)	2020ko abendua			2019ko abendua			Urteko alda-kuntza	% Ur-teko al-dakuntza
		Gizon	Ema-kume	Guztira	Gizon	Emakume	Guztira	Guztira	Guztira
LH	Araba	84,524	71,763	156,286	87,466	74,028	161,494	-5,208	-3.2%
	Gipuzkoa	168,064	153,228	321,293	172,561	155,155	327,716	-6,423	-2.0%
	Bizkaia	246,458	235,094	481,553	251,749	239,632	491,382	-9,829	-2.0%
	Guztira EAE	499,047	460,085	959,132	511,776	468,815	980,592	-21,460	-2.2%
Jarduerak	Lehen sektorea			11,721			11,783	-62	-0.5%
	Erauzketa-industriak			552			566	-14	-2.5%
	Manufaktura-ind.			168,494			175,063	-6,569	-3.8%
	Energia			1,577			1,502	75	5.0%
	Ura			6,346			6,306	40	0.6%
	Eraikuntza			56,624			57,092	-468	-0.8%
	Merkataritza			136,136			138,906	-2,770	-2.0%
	Garraioak			42,621			43,145	-524	-1.2%
	Ostalaritza			61,007			68,088	-7,081	-10.4%
	Informazioa			23,571			23,275	296	1.3%
	Finantzak eta aseguruak			17,352			17,795	-443	-2.5%
	Higiezin sektorea			4,132			4,157	-25	-0.6%
	Zientifikoak eta teknikoak			57,009			57,301	-292	-0.5%
	Administraziokoak			66,784			66,735	49	0.1%
	Admin. publikoa			48,530			49,243	-713	-1.4%
	Hezkuntza			75,349			75,999	-650	-0.9%
	Osasuna eta Gizarte jarduerak			110,636			107,646	2,990	2.8%
	Artea eta Aisialdia			15,626			17,517	-1,891	-10.8%
	Beste zerbitzurik			26,131			28,709	-2,578	-9.0%
	Familia etxeak			28,876			29,709	-833	-2.8%
	Lurraldez kanpokoak			57			57	0	0.4%
Nazionalitatea	Atzerritarrak, EAE	37,934	30,720	68,654	38,110	31,260	69,370	-716	-1.0%
	Araba	7,219	4,774	11,993	7,413	4,893	12,306	-313	-2.5%
	Gipuzkoa	12,989	10,826	23,816	13,425	11,180	24,605	-789	-3.2%
	Bizkaia	17,726	15,120	32,846	17,272	15,187	32,459	387	1.2%
	Bertakoak, EAE	461,113	429,365	890,478	473,666	437,555	911,222	-20,744	-2.3%

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa

Kontratatutako pertsonak

Kontratatutako pertsona kopurua		2020			2019			Urteko aldakuntza	% Urteko aldakuntza
		Gizon	Emakume	Guztira	Gizon	Emakume	Guztira	Guztira	Guztira
Guztira EAE		127,750	117,562	245,312	163,542	147,028	310,570	-65,258	-21.0%
Adina	<20 urte			8,334			14,721	-6,387	-43.4%
	20 - 24 urte			37,539			48,464	-10,925	-22.5%
	25 - 29 urte			38,246			46,456	-8,210	-17.7%
	30 - 44 urte			91,452			116,825	-25,373	-21.7%
	>45 urte			69,741			84,554	-14,813	-17.5%
Nazionalitatea	Bertakoak			202,090			259,419	-57,329	-22.1%
	Atzerritarrak			43,222			51,151	-7,929	-15.5%
	<>			200			63	137	217.5%
	Aberrigabeak			182			188	-6	-3.2%
	Europako Erkidegokoa			4,412			6,053	-1,641	-27.1%
	Erkidez kanpoko Europa			5,381			7,075	-1,694	-23.9%
	Txina			873			1,144	-271	-23.7%
	Japonia			26			36	-10	-27.8%
	Asiako beste herrialdeak			2,793			3,461	-668	-19.3%
	Saharaz hegoaldeko Afrika			4,838			5,499	-661	-12.0%
	Afrikako iparraldea			6,377			8,033	-1,656	-20.6%
	Ipar Amerika			127			180	-53	-29.4%
	Latinoamerika			17,990			19,372	-1,382	-7.1%
	Ozeania			23			47	-24	-51.1%
Errotazio-tasa (sinatutako kontratuak/kontratatutako pertsonak)		2.8	3	2.9	3	3.4	3.2	-0.3	-9.4%

Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Sinatu diren kontratuak

Sinatu diren kontratu kopurua		2020	2019	Urteko alda-kuntza	% Urteko alda-kuntza
		Guztira	Guztira	Guztira	Guztira
Guztira EAE		703,355	1,008,175	-304,820	-30.2%
LH	Araba	134,138	193,720	-59,582	-30.8%
	Bizkaia	361,448	520,674	-159,226	-30.6%
	Gipuzkoa	207,769	293,781	-86,012	-29.3%
Jarduerak	Lehen sektorea	15,598	17,618	-2,020	-11.5%
	Erauzketa ind.	115	114	1	0.9%
	manufaktura ind.	104,120	144,172	-40,052	-27.8%
	Energia	135	146	-11	-7.5%
	Ura	5,349	6,259	-910	-14.5%
	Eraikuntza	28,146	34,049	-5,903	-17.3%
	Merkataritza	92,611	107,493	-14,882	-13.8%
	Garraioa	70,187	82,453	-12,266	-14.9%
	Ostalaritza	66,452	171,383	-104,931	-61.2%
	Informazioa	22,521	30,441	-7,920	-26.0%
	Finantzak eta aseguruak	3,227	4,338	-1,111	-25.6%
	Higiezin sektorea	971	1,389	-418	-30.1%
	Zientifikoak eta teknikoak	20,870	33,808	-12,938	-38.3%
	Administraziokoak	77,783	108,392	-30,609	-28.2%
	Administrazio publikoa	9,966	14,395	-4,429	-30.8%
	Hezkuntza	33,232	51,030	-17,798	-34.9%
	Osasuna eta Gizarte jarduerak	103,647	117,203	-13,556	-11.6%
	Artea, aisialdia	20,862	45,069	-24,207	-53.7%
	Beste zerbitzuak	11,595	20,966	-9,371	-44.7%
	Familia-etxeak	15,845	17,218	-1,373	-8.0%
	Lurraldez kanpokoak	123	239	-116	-48.5%
Okupazio-taldeak	<>	8	44	-36	-81.8%
	Zuzendariak	1,504	1,810	-306	-16.9%
	Zientzia teknikariak	76,525	103,673	-27,148	-26.2%
	Laguntza teknikariak	53,695	82,151	-28,456	-34.6%
	Administrariak	43,609	58,873	-15,264	-25.9%
	Kualifikatuak, Zerbitzuetan	196,516	315,387	-118,871	-37.7%
	Kualifikatuak, Lehen sektorean	3,457	4,252	-795	-18.7%
	Kualifikatuak, Industrian	56,360	75,096	-18,736	-24.9%
	Operadoreak	47,938	62,491	-14,553	-23.3%
	Kualifikatu gabeak	223,743	304,398	-80,655	-26.5%
Kontratu-motak	Mugagabeak, guztira	59,448	83,931	-24,483	-29.2%
	Emakumezkoak	29,531	43,481	-13,950	-32.1%
	Gizonezkoak	29,917	40,450	-10,533	-26.0%
	Aldi baterakoak, guztira	643,907	924,244	-280,337	-30.3%
	Emakumezkoak	317,807	458,549	-140,742	-30.7%
	Gizonezkoak	326,100	465,695	-139,595	-30.0%
	Lanaldi partzialekoak	268,664	405,609	-136,945	-33.8%

	Emakumezkoak	177,594	270,303	-92,709	-34.3%
	Gizonezkoak	91,070	135,306	-44,236	-32.7%
Kontratu mugagabeak, adinaren arabera	<20 urte	974	1,997	-1,023	-51.2%
	20-24 urte	6,192	8,827	-2,635	-29.9%
	25-29 urte	9,599	12,976	-3,377	-26.0%
	30-44 urte	25,051	35,813	-10,762	-30.1%
	>45 urte	17,632	24,318	-6,686	-27.5%
Mugagabeak, okupazio taldearen arabera	Zuzendariak	883	1,149	-266	-23.2%
	Zientzia teknikariak	7,165	9,026	-1,861	-20.6%
	Laguntza teknikariak	6,529	9,520	-2,991	-31.4%
	Administrariak	6,257	8,216	-1,959	-23.8%
	Kualifikatuak, Zerbitzuetan	12,758	20,793	-8,035	-38.6%
	Kualifikatuak, Lehen sektorea	400	479	-79	-16.5%
	Kualifikatuak, Industria	5,276	7,542	-2,266	-30.0%
	Operadoreak	4,915	6,572	-1,657	-25.2%
	Kualifikatu gabeak	15,264	20,630	-5,366	-26.0%
Mugagabeak, jarduera motaren arabera	Lehen sektorea	617	736	-119	-16.2%
	Erauzketa-industria	31	44	-13	-29.5%
	Manufaktura-industria	8,211	12,081	-3,870	-32.0%
	Energia	59	49	10	20.4%
	Ura	326	530	-204	-38.5%
	Eraikuntza	3,655	4,571	-916	-20.0%
	Merkataritza	9,522	13,208	-3,686	-27.9%
	Garraioa	3,623	4,579	-956	-20.9%
	Ostalaritza	7,197	13,947	-6,750	-48.4%
	Informazioa	1,822	2,658	-836	-31.5%
	Finantzak eta aseguruak	519	672	-153	-22.8%
	Higiezin sektorea	225	361	-136	-37.7%
	Zientifikoak eta teknikoak	3,862	5,294	-1,432	-27.0%
	Administraziokoak	3,302	5,102	-1,800	-35.3%
	Administrazio publikoa	117	136	-19	-14.0%
	Hezkuntza	2,242	2,993	-751	-25.1%
	Osasuna eta Gizarte jarduerak	3,955	4,648	-693	-14.9%
	Artea, aisialdia	1,178	2,087	-909	-43.6%
	Beste zerbitzuak	1,505	2,018	-513	-25.4%
	Familia-etxeak	7,382	8,016	-634	-7.9%
	Lurraldez kanpokoak	98	201	-103	-51.2%
Mugagabeak, nazionalitatearen arabera	Bertakoak	47,135	68,280	-21,145	-31.0%
	Atzerritarrak	12,313	15,651	-3,338	-21.3%

Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa

Aldagai nagusiak-Biztanleria Jardueraren Arabera-Eustat

DATU OROKORRAK 2020 4H

SEXUAREN ARABERA

		Tasa	Guztira
Landunak	guztira	*49,8*	930.500
	gizonezkoak	*53,8*	482.700
	emakumezkoak	*46,1*	447.800
Langabeak	guztira	*11,2*	116.900
	gizonezkoak	*11,5*	62.600
	emakumezkoak	*10,8*	54.300

LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

		Tasa	Guztira
Landunak	Araba	*52,3*	145.000
	Bizkaia	*48,2*	473.600
	Gipuzkoa	*51,3*	311.900
Langabeak	Araba	*10,1*	16.400
	Bizkaia	*12,6*	68.300
	Gipuzkoa	*9,4*	32.200

ADINAREN ARABERA

		Tasa	Guztira
Landunak	guzitra	*49,8*	930.500
	16-24 urte	*21,6*	40.000
	25-44 urte	*77,5*	402.600
	45 +	*41,9*	487.800
Langabeak	guzitra	*11,2*	116.900
	16-24 urte	*24,2*	12.800
	25-44 urte	*13,1*	60.600
	45 +	*8,2*	43.600

LANDUNAK SEKTOREAREN ARABERA

		Landunak	%
Datu orokorrak	Lehen sektorea	7.900	0,8%
	Industria	199.400	21,4%
	Eraikuntza	49.000	5,3%
	Zerbitzuak	674.200	72,5%

Urteko bilakaera	Lehen sektorea	saldoa	-500
		bilak %	-6,0%
	Industria	saldoa	-3.400
		bilak %	-1,7%
	Eraikuntza	saldoa	200
		bilak %	0,4%
	Zerbitzuak	saldoa	-14.800
		bilak %	-2,1%

Iturria: Eustat, BJA

Elaborazioa: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

BILAKAERA			Langabeak	Landunak
GUZTIRA				
Urteko bilakaera		saldoa	17.400	-18.600
		bilak %	17,5%	-2,0%
SEXUA				
Urteko bila-kaera	gizonezkoak	saldoa	14.800	-15.300
		bilak %	31,0%	-3,1%
	emakumezkoak	saldoa	2.600	-3.200
		bilak %	5,0%	-0,7%
LURRALDE HISTORIKOA				
Urteko bila-kaera	Araba	saldoa	-300	-1.600
		bilak %	-1,8%	-1,1%
	Bizkaia	saldoa	10.300	-9.500
		bilak %	17,8%	-2,0%
	Gipuzkoa	saldoa	7.400	-7.500
		bilak %	29,8%	-2,3%
ADINA				
Urteko bila-kaera	16-24 urte	saldoa	3.000	6.200
		bilak %	30,6%	18,3%
	25-44 urte	saldoa	9.400	-30.700
		bilak %	18,4%	-7,1%
	45 +	saldoa	5.100	5.900
		bilak %	13,2%	1,2%

Iturria: Eustat, BJA
Elaborazioa: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.